


## Euskal AEko migrazio-saldoak positiboa izaten jarraitzen du 2023an: 20.928 pertsona

**Atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoa % 18 murriztu da; autonomia-erkidegoekiko saldoa, berriz, positiboa izan da berriro, 1.814 pertsonatan**

Eustaten datuen arabera, 2023an migrazio-saldoak positiboa izaten jarraitu zuen (20.928 pertsonakoa), baina % 5,6 murriztu zen 2022ren aldean (22.171 pertsona). 2023an 58.568 immigrazio izan ziren, eta 2022an, berriz, 59.194 (% 1,1eko jaitsiera). Emigrazio-kopuruak, berriz, gora egin du pixka bat: 2022an 37.023 pertsonak emigratu zuten, eta 2023an 37.640k (% 1,7ko igoera)



Migrazio-saldoak goranzko joera izan du urtean zehar: urtarriletik ekainera 9.591 pertsonatan izan zen positiboa, eta urtearen bigarren erdian handiagoa izan zen, 11.337 pertsona.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak du migrazio-saldorik altuena, 11.622 pertsonarekin, eta 2022rekiko ere jaitsiera txikiena izan du (-%1,4); Gipuzkoak 6.097 pertsonako saldo positiboa izan du, eta jaitsierarik handiena (2022an baino % 14,3 gutxiago), eta Arabako saldoa 3.209koa izan da (% 2 gutxiago).

Hiriburuei dagokienez, saldo positiboak dituzte hirurek: 3.839 Bilbok, 1.241 Donostiak eta 2.405 Gasteizek.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 2023an 1.814 pertsonako saldo positiboa zenbatu zen, 2019tik gertatzen ez zena. Bestalde, atzerriko herrialdeekiko saldoa 19.114 pertsonakoa izan da, hori ere positiboa, baina 2022an baino % 18 txikiagoa.


Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoa –jatorria edo helmuga Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo duten bizileku-aldaketak– ia egonkor mantendu da: 1.000 biztanleko 44 izan ziren 2022an, eta 2023an 43,8. Lurraldeka, Araban ia 2 puntu igo da Erkidegotik kanpoko mugikortasun-geografikoa, ‰ 48,5era iritsiz; Gipuzkoan, aldiz, ‰ 1,5 puntu murriztu da, ‰ 41,1era iritsiz; eta Bizkaian ‰ 44,1ean mantendu da.

**Autonomia-erkidegoekiko migrazio-saldoa positiboa izan zen 2023an (1.814 pertsona), eta negatiboa 2022an (1.153)**

Autonomia-erkidegoekiko migrazio-mugimenduak kontuan hartuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoak migrazio-saldo positiboa izan zuen: 11k migrazio-saldo positiboa izan zuten, eta beste 6en saldoa negatiboa izan zen. Horrela, 2023an saldoa 1.814 pertsona gehiagokoa izan zen, aurreko urteko 1.153ko saldo negatiboaren aldean.

Euskal Autonomia Erkidegoa utzi eta beste autonomia-erkidegoetara emigratu duten pertsona gehienak, % 56,5 hain zuzen, hurrengo bost autonomia-erkidegoetara joan dira nagusiki: Gaztela eta Leon, Madril, Kantabria, Katalunia eta Andaluzia, hurrenkera horretan. Beste autonomia-erkidego batzuetara egindako migrazioak 19.677 izan dira guztira.

**Euskal AEko migrazioak, jatorriko eta helmugako autonomia-erkidegoaren arabera. 2023**



Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Autonomia-erkidego berak izan ziren etorkin gehien ekarri zituztenak, beheranzko ordena honetan: Madril, Gaztela eta Leon, Andaluzia, Katalunia eta Kantabria. Bosten artean, Estatuko gainerako herrialdeetatik etorritako etorkin guztien % 58,5 ekarri zuten. Beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako migrazioak, guztira, 21.491 izan dira.

Andaluzia da saldo positibo handiena duen autonomia-erkidegoa (647 pertsona), eta Errioxa, negatiboena (217 pertsona).

### ***Etorkinen % 70ek eta emigratzaileen % 50ek atzerriko nazionalitatea zuten***

Etorkinen batez besteko adina urte erdi baino gehiago igo da, 33,1era arte, eta emigratzaileena 37,1 urte da. 20-39 urteko pertsonen migrazioen % 50,9 eta emigrazioen % 47,4 egin zituzten. Adin-talde ohikoenak 25-29 urtekoak (immigrazioen % 15,2 eta emigrazioen % 14) eta 30-34 urtekoak (immigrazioen % 13,2 eta emigrazioen % 13,3) dira.

Sexuaren araberako aldeak pixka bat handitu dira aurreko urtearekin alderatuta: gizonak etorkinen % 52,5 dira eta emakumeak % 47,5; antzera, emigratzaileen % 53,8 gizonak dira eta % 46,2 emakumeak.

Atzerriko nazionalitatea zuten pertsonen migrazioak 40.957 izan ziren 2023an, hau da, migrazio guztien % 69,9. Horietatik 33.316 zuzenean atzerriko herrialde batetik etorri ziren (% 81,3), eta gainerakoak, 7.641, beste autonomia-erkidego batetik (% 18,7), batez ere Madrildik, Kataluniatik eta Andaluziatik.

Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen emigrazioak 18.695 izan ziren, hau da, emigrazio guztien % 49,7. % 72k atzerriko herrialderen bat izan zuten helmuga. Ondorioz, atzeritarren migrazio-saldoa positiboa izan zen: 22.262 izan ziren 2023an, eta 25.354, berriz, 2022an, hau da, aurreko urtean baino % 12,2 gutxiago.

### ***Euskal biztanleriaren bizileku-aldaketan % 60 Euskal AEn gertatzen da***

Euskal AEko biztanleen % 10,9k bizileku-aldaketaren bat egin zuen 2023an, eta mugikortasun hori, kasuen % 60an, Euskal Autonomia Erkidegora barnekoa izan zen; gainerako kasuetan, berriz, erkidegotik kanpokoak.

Guztira, 240.211 ohiko bizileku-aldaketa zenbatu dira Euskal AEn. Horietatik 91.045 udalerrri berean aldatu ziren. Erkidego barruko mugikortasuna, hau da, Euskal AEko udalerrien jatorria eta helmuga duena, 52.958 mugimendutara igo zen.

Era berean, kanpoko edo erkidegotik kanpoko 58.568 migrazio erregistratu ziren, hau da, jatorria erkidegotik kanpo dutenak eta helmuga Euskal Autonomia Erkidegoa dutenak; horietatik 37.077 atzeritik etorri ziren, 2022an baino % 5,6 gutxiago.

Azkenik, kanpoko edo erkidegotik kanpoko 37.640 migrazio izan ziren, edo, bestela esanda, Euskal AEko udalerrri batetik kanpora etorritako egoitza-aldakuntzak; horien % 47,7 (17.963) atzerriara joan ziren.

## Migrazio-mugimendu eta -saldoen bilakaera. Euskal AE. 1988-2023

	Inmigrazioak		Emigrazioak		Migrazio saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988 = 100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988 = 100)	Guztira
1988	8.014	100	18.103	100	-10.089
1992	9.006	112	13.668	76	-4.662
1995	11.316	141	16.130	89	-4.814
1999	16.103	201	17.291	96	-1.188
2000	20.022	250	17.462	96	3.903
2001	25.775	322	18.696	103	7.861
2002	25.967	324	19.730	109	6.082
2003	28.467	355	22.216	123	4.864
2004	30.328	378	21.304	118	8.116
2005	33.993	424	20.672	114	12.256
2006	37.147	464	22.689	125	11.827
2007	41.361	516	23.669	131	16.835
2008	44.630	557	29.941	165	14.689
2009	38.368	479	31.815	176	6.553
2010	38.591	482	33.425	185	5.166
2011	41.011	512	32.819	181	8.192
2012	34.362	429	34.589	191	-227
2013	33.987	424	35.943	199	-1.956
2014	35.491	443	31.889	176	3.602
2015	35.917	448	32.555	180	3.362
2016	40.126	501	31.255	173	8.871
2017	41.861	522	31.136	172	10.725
2018	46.982	586	32.258	178	14.724
2019	52.306	653	32.838	181	19.468
2020	35.221	439	30.709	170	4.512
2021	39.427	492	35.839	198	3.588
2022	59.194	739	37.023	205	22.171
2023	58.568	731	37.640	208	20.928

Data 2024ko Irailaren 26a

Iturria: Eustat. Migrazio Mugimenduen Estatistika

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Telf.: 945 01 75 62